



Otsoen lurraldean

Joserra Zabala*

Azken urteotan galdutzat eman genuen bisitaria itzuli da Arabako eta Bizkaiko mendietara; Salbadan, Karrantzan edota Ordunten berriro dabil otsoa, gure faunako animalia. Ea noiz arte irautean duen.

Datu ofizialen arabera, 1987. urtetik gaur arte 37 otso hil dira Bizkaian. Zenbaki horiek —bestelako kritikak alde batera utzi eta gero— otsoen etorrera ez dela bat-batekoa izan adierazten digute. Kontuan izan behar dugu esaterako, estatu espainolean bi mila ale baino ez direla gelditzen; gurea ez da, hortaz, portzentaia txarra. Horrez gain, jakin behar da itzulera hori gerta zedin ez dela aparteko aha-lerinik egin eta itxura guztien arabera, otsoa erraz egoki daitekeela, batere arazorik gabe, gure mendietako baldintzetara. Tamalez, herritar guztiak ez dira iritzi berekoak eta Karrantzara joatea besterik ez dago horretaz ohar-tzeko; hango tabernetan, ehizatutako otsoen argazkiak erakusten dituzte, bezeroak “egindako balentria” ezagut dezan. Bada, herritar horiek ez dute ulertu babesturik dagoen animalia horrek berebiziko onurak ekar diezazkieceenik; bailara ezagutzera eman nahi bada eta, zergatik ez, dirulaguntzak jaso nahi badira, alde jokatzeko du ingurunea aberatsa izateak. Tamalez, gure fauna-ondarearen espezie nagusitako bat ehizako “trofeo” bilakatu da.

Baina ezin da alde bakar batera begiratu. Herritarrek harraparitzat jotzen dute otsoa, baina administrazioak ez du hori emendatzeko keinurik egiten eta areago, bide okerragotik jotzen du. Herritar batzuek animalia akabatzeke asmoz, ibilaldiak egiten dituzte eta administrazioak goi-tentsioko kableak bertatik pasarazi nahi ditu, otsoen habitata zeharo hondatuz.

Goi-tentsioko mamutzar berria Kantabriako Penagostik Guenesera joango den 400 kilowattteko zirkuitu bikoitzeko linea da. Ibilbide horretan, Raneroko Haitzak igaroko ditu, hau da, izen bereko parkearen bihotza alderik alde zeharkatuko du. Baina proiektua ez da horretara mugatzen; Bizkaitik Gipuzkoarako bidean, Itxaso herriraino iritsiko da beste bi naturgune garrantzitsu zeharkatuz: Gorbea eta Aizkorri, berriki parke natural izendatu dituztenak.

Horren guztiaren aurrean bada, aurkako jarre-
rak agertzeari normala deritzot; eta protesta-
ren aurrean Madrilgo Gobernuak, ohizko *sensibilitate*a erakutsiz, goi-tentsioko linea erabile-
ra publikokoa dela argudiatu izana ere, nor-
maltzat jo behar da, tamalez.

Txikizio berriak ez die batere lagunduko Karrantzako berreskurapen-egitasmoei, ezta otsoen itzulerari ere. Gure ondare naturalaren kontrako azpijoko berri baten atarian gaudela esan daiteke, atal berri bat zabaltzekotan. Karrantzako ehiztarien sarraskiek lortu ez zutena, garapenaren izenean gertatuko ote den galdetu beharko genuke (zergatik dira beti elkarren sinonimo garapena eta txikizioa?). Nola kritika dezakegu bertako zenbait herritar-
ren —ez guztien, jakina— zentzugabekeria, Estatuak diseinatu duen egitasmo beldurgarri-
aren aurrean? Goi-tentsioko dorre elektrikoak kanposantu berriko gurutzeak izango dira.

Nolanahi ere, otsoak Karrantzara itzuli direla jakiteak poztu behar gaitu; bertako basoetan ari diren bitartean behintzat, ugartun horiek eta inguruneak etorkizunetik badutela esan baitaiteke. Urte askotarako bada, Energia eta Industria Ministeritzaren baimenaz, beti ere.



* Ekologista